



## 6. LARRIALDIETAN JARDUTEKO PLANA


### 6.1 Larrialdien identifikazioa eta sailkapena

Aipatu behar da plan honetan jasotako arrisku gehienak, zeinak jarraian aipatuko baititugu, suteak dituztela ondorio, edo suteen ondorengo seinaleak direla. Horregatik, hemen jasotako prebentzio-, babes- eta antolaketa-neurriak, nahiz eta sutera bideratuta egon, baliagarriak dira aztertutako gainerako arrisku kasuetarako. **Arrisku motaren arabera**, hau izango da sailkapena:

 Arrisku fisikoak: leherketa fisikoa, arrisku mekanikoak, elektrikoak, termikoak, etab.

 Arrisku teknikoak: kontserbazioko, mantentze lanetako, instalazioko eta abarretako akatsak.

 Portaera antisozialaren ondoriozko arriskuak: bidegabe sartzea, ordena publikoa nahastea, etab.

 Arrisku naturalak: tximistak, lurrikarak, etab.

**Duten larritasunagatik**, eta kontrolatzeko zailtasunen eta izan ditzaketen ondorioen arabera, larrialdiak honela sailka daitezke:

- Larrialdi hasiera: lokalaren, aretoaren edo eraikinaren babeseko langile eta bitartekoen bidez erraz eta azkar kontrolatu eta menderatu daitekeen istripua da.
- Larrialdi partziala: halako istripuak menderatzeko, beharrezkoa da larrialdietako talde bereziek jardutea. Larrialdi partzialaren ondorioak sektore edo eraikin batera mugatuko dira, eta ez diete eragingo ondoko beste sektore eta/edo eraikin batzuei, ez eta hirugarrenei ere.
- Larrialdi orokorra: halako istripuetan, beharrezkoa izaten da enpresaren babeseko talde eta bitarteko guztien parte hartzea eta kanpoko laguntza- eta sorospen-bitartekoen laguntza. Larrialdi orokorretan, sektore eta/edo eraikin jakin batzuetako pertsonak ebakuatu behar izaten dira.

### 6.2 Larrialdietan jarduteko prozedurak

Larrialdi Planean daude jasota larrialdi batean gauzatu beharreko jarduerak. Plan horren helburua da istripu edo gorabehera batean jarduketa hauek bermatzea:

 Istripu edo gorabehera bat **detektatzea**



**Alarma** hori larrialdiko gailura transmititzea



Larrialdiari erantzutea (**esku hartzea**)



**Ebakuatzea**, beharrezkoa izanez gero



**Kanpo Zerbitzuei** abisatzea (behar izanez gero) eta harrera egitea

Instalazioetan jarduerak egiten dituen edonork identifikatu dezake larrialdi egoera bat, eta atal honetan zehaztutakoaren arabera jardun.

Jarraian, **sutea izanez gero** bete beharreko prozedura deskribatuko dugu, osoena dela uste baita.

### a) **Detekzioa eta alerta**

Lehenengo urratsa sutea detektatzea da. Giza baliabideen (langileak, kiroldegiko erabiltzaileak, etab.) edo detektagailu automatikoen bidez detektatzen da.

Kiroldegietako segurtasuna handitzeko, sistema bikoitza ezarri da detekzio- eta alarma-faserako.

#### 1) **Langileen eta erabiltzaileen aldetiko detekzioaren eta alarmaren fasea.**

Instalazioko langile edo erabiltzaile batek sute alarma bat detektatzen duenean, ahoz, telefonoz edo instalatutako alarma sakagailuen bidez jakinaraziko du.

Sakagailu bat aktibatzen bada, alarma zentralak seinalea jasotzen du, burrunbagailuak soinu egiten du eta automatikoki jartzen da harremanetan kontratatutako segurtasun enpresarekin.

Segurtasun enpresak instalaziora deitzen du alarma egiazkoa dela baieztatzeko.

Alarma baieztatzen bada, segurtasun enpresak **112** zenbakira deitzen du (udaltzaingoa, suhiltzaileak, anbulantziak, etab.).

#### 2) **Suteak detektatzeko bitartekoen (detektagailua) aldetiko detekzioaren eta alarmaren fasea:**

Detektagailu bat aktibatzen bada, alarma zentralak seinalea jasotzen du, burrunbagailua aktibatzen da eta automatikoki jartzen da harremanetan kontratatutako segurtasun enpresarekin.

Segurtasun enpresak instalaziora deitzen du alarma egiazkoa dela baieztatzeko.



Alarma baieztatzen bada, segurtasun enpresak **112** zenbakira deitzen du (udaltzaingoa, suhiltzaileak, anbulantziak, etab.).

Zentralitako burrunbagailua gelditzen ez bada, minutu batzuen buruan ebakuazio planaren aktibazioa adierazten duten sirenak hasiko dira jotzen.

## b) Alarmaren mekanismoak

Bigarren urratsa informazio hori Larrialdi Taldeari eta/edo kiroldegiko langileei helaraztea da. Bi transmisio mota daude:

  **Mugatua:** eremu horretako Larrialdi Taldeari soilik abisatzen zaionean.

  **Orokorra:** kiroldegi osoa ohartarazten denean, eremu guztiak azkar ebakutzen hasteko. Larrialdietako buruak soilik eman dezake alarma orokor hori pizteko agindua.

### b.1) Abisuak emango dituen pertsonaren identifikazioa

Atxikipena	Abisuak emango dituen pertsona
Kontrol Zentroa	Harrerako/atezaintzako langileak

### b.2) Babes Zibileko Larrialdiei aurre egiteko Koordinazio Zentroaren identifikazioa

Izena	AE-KO BABES ZIBILA LARRIALDIAK 112
LARRIALDIETAKO telefonoa	112

## c) Larrialdiei erantzuteko mekanismoak

Larrialdia deuseztatzeko gaitasuna duela uste duen edozein langilek esku hartuko du.

Nolanahi ere, Esku Hartzeko Taldeari abisua eman ondoren, larrialdia gertatu den lekura joango da eta larrialdia deuseztatzeko esku hartuko du. Esku hartzeko burua izango da talde horren buru.

## d) Ebakuazioa edo konfinamendua

Sua itzaltzea lortzen ez bada, Larrialdi Taldeak kiroldegia edo haren zati bat ebakutu behar den erabakiko du.

Informazio hori kiroldegian dauden pertsona guztiei helaraziko zaie, eta Alarma eta Ebakuazio Taldeak ezarri den bilgunera bidaliko ditu langile guztiak, ebakuazioa ahalik eta seguruena eta azkarrena izan dadin.

#### **e) Lehen laguntzak ematea**

Larrialdietako buruaren agindupean, Kontrol Zentroak jakinaren gainean jarriko ditu kanpoko laguntzak, beharrezkoa izanez gero.

Larrialdietako lehen laguntzak horretarako izendatutako larrialdi taldeak emango ditu, lehen adierazi dugun moduan. Taldekideek horretarako gaitasuna dutela uste duten guztietan emango dira, beren gain arrisku handirik hartu gabe.

Kanpoko laguntza iristen denean, hark egingo ditu beharrezkoak diren jarduketak.


#### **f) Kanpoko laguntzak jasotzeko moduak**

Larrialdietan, larrialdietako buruaren lantokia Kontrol Zentroa izango da, eta hark egingo die harrera Kanpoko Laguntzei, larrialdia dagoen eremuaren plano bat emango die, eta alderdi hauen berri emango die: ezbeharra non gertatu den eta Kontrol Zentrotik hara nola iritsi, planoan adierazita; ezbeharraren ezaugarri ezagunak; ezbeharra gertatu den lekutik hurbileko eremuen arriskugarritasuna; ebakuazioan izandako gorabeherak; eta norbait zaurituta eta/edo harrapatuta dagoen.

### **6.3 Larrialdietan jarduteko prozedurak gauzatuko dituzten pertsonen eta taldeen identifikazioa eta funtzioak**

Hona hemen eraikin honetarako proposatu den Larrialdietarako Segurtasun Antolamenduaren organigrama orokorra:

a) Eguneroko funtzionamendu normaleko araubiderako organigrama



**LARRIALDIETAKO BURUA:** larrialdietako burua **Fermin Ijurco** da (Donostiako Kiroletarako Udal Patronatuko Obren eta Mantentze Lanen teknikaria)

**1. ordezkoa:** Kiroletako Udal Patronatuko kirol eremuko teknikaria.

**2. ordezkoa:** kirol eremuko teknikariaren ordezkoa, Kiroletako Udal Patronatuan ezarritakoari jarraikiz.


**ESKU HARTZEKO BURUA:** esku-hartzeko burua **instalazioaren arduraduna** izango da.

**1. ordezkoa:** Arduraduna ez badago, esku hartzeko taldeko kide batek bere gain hartuko du esku hartzeko buruaren eginkizuna. (Kontrolako langileek hartuko dute beren gain eginkizun hori, telefonoa baitute)

**ESKU HARTZEKO TALDEA:** kiroldegian esku hartzeko taldea instalazioen mantentze lanetako eta kontrolako langileek osatuko dute.

**EBAKUAZIOKO TALDEA:** ebakuazioko taldea begiraleek, sorosleek, lokaletako langileek eta kafetegiko langileek osatzen dute, eta jendea ebakutzen lagunduko dute.

b) **Ekitaldietarako organigrama**



**LARRIALDIETAKO BURUA:** larrialdietako burua **Fermin Ijurco** da (Donostiako Kiroletarako Udal Patronatuko Obren eta Mantentze Lanen teknikaria)

**1. ordezkoa:** Kiroletako Udal Patronatuko kirol eremuko teknikaria.

**2. ordezkoa:** kirol eremuko teknikariaren ordezkoa, Kiroletako Udal Patronatuan ezarritakoari jarraikiz.

**ESKU HARTZEKO BURUA:** esku-hartzeko burua **ekitaldiaren arduraduna** izango da.

**1. ordezkoa:** Ekitaldiaren arduraduna ez badago, esku hartzeko taldeko kide batek bere gain hartuko du esku hartzeko buruaren eginkizuna.

**ESKU HARTZEKO ETA EBAKUATZEKO TALDEA:** ekitaldiaren segurtasunerako kontratatutako segurtasun enpresako langileek osatuko dute instalazioan antolatutako ekitaldietan esku hartzeko eta ebakuatzeko taldea.

Jarraian, larrialdiren bat gertatuz gero betebeharrak zehatzak dituzten pertsonentzako jarduketak fitxak aurkeztuko ditugu.

Pertsona bakoitzak bere lanpostuan eduki beharko du dagokion fitxa, edozein unetan aztertzeko eta larrialdi bat gertatzen denean behar bezala jokatu ahal izateko.

Ekitaldi zehatz bakoitzerako, esku hartzeko edo ebakuatzeko taldea osatuko duten pertsonak izendatuko dira, bai eta esku hartzeko burua ere.

Ekitaldia egin baino egun batzuk lehenago, Kiroletako Udal Patronatuak pertsona horien izendapenaren berri emango dio Eusko Jaurlaritzaren Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzari, txosten honen **V. eranskinean** jasota dagoen inprimakia bete eta aurkeztuta.

### 6.3.1 SUTEA DAGOENERAKO JARDUKETA FITXAK

Kiroldegietako segurtasuna handitzeko, sistema bikoitza ezarri da detekzio- eta alarma-faserako.

1) **Langileen eta erabiltzaileen aldetiko detekzioaren eta alarmaren fasea.**

Instalazioko langile edo erabiltzaile batek sute alarma bat detektatzen duenean, ahoz, telefonoz edo instalatutako alarma sakagailuen bidez jakinaraziko du.

Sakagailu bat aktibatzen bada, alarma zentralak seinalea jasotzen du eta automatikoki jartzen da harremanetan kontratatutako segurtasun enpresarekin.

Segurtasun enpresak instalaziora deitzen du alarma egiazkoa dela baieztatzeko.

Alarma baieztatzen bada, segurtasun enpresak **112** zenbakira deitzen du (udaltzaingoa, suhiltzaileak, anbulantziak, etab.).

2) **Suteak detektatzeko bitartekoen (detektagailua) aldetiko detekzioaren eta alarmaren fasea:**



Detektagailu bat aktibatzen bada, alarma zentralak seinalea jasotzen du eta automatikoki jartzen da harremanetan kontratatutako segurtasun enpresarekin.

Segurtasun enpresak instalaziora deitzen du alarma egiazkoa dela baieztatzeko.

Alarma baieztatzen bada, segurtasun enpresak **112** zenbakira deitzen du (udaltzaingoa, suhiltzaileak, anbulantziak, etab.).

Hauek dira sutea dagoenerako jarduketa fitxak:

### KONTROL ZENTROAREN (KZ) SEGURTASUN FITXA

- 1) Alarmaren berri izango du langile baten ahotik, sakagailuaren bidez edo su detektagailu baten bidez  
  Zer gertatzen den eta non gertatzen den arakatu
- 2) Esku hartzeko taldeari abisatu, gertakariaren lekura joan daitezten.
- 3) Egokitza jotzen bada, 112 zenbakira deitu, eta kanpoko laguntza eskatu
- 4) Larrialdiko buruari abisatu
- 5) Kanpoko Zerbitzuei harrera egin, Kontrol Zentroan dagoen Suhiltzaileentzako Dokumentazioko Karpetaekin
- 6) Bete larrialdietako buruaren aginduak
  - Ebakuazio Plana aktibatzea erabakitzen baduzu: esan eremuetako Alarma eta Ebakuazio Taldeetako kideei ebakutzeko eta alarma sirenak aktibatzeko.
- 7) Ezarritako bilgunera eraman

### LARRIALDIETAKO BURUAREN (LB) SEGURTASUN FITXA

- 1) Ezbehar baten berri ematen zaio.
- 2) Une oro harremanetan egongo da esku hartzeko buruarekin telefonoz, ezbeharraren bilakaeraren berri eman diezaion.
- 3) Kanpoko laguntza eskatu behar dela erabakitzen du. Kontrol Zentroari agintzen dio
- 4) Ebakuazio Plana aktibatu behar dela erabakitzen du. Kontrol Zentroari agintzen dio
- 5) Larrialdiaren amaiera agintzen du. Kalteak ebaluatzen ditu, egoera normala berrezartzen du eta ezbeharrari buruzko txostena idazten du esku hartzeko buruarekin batera.

### ESKU HARTZEKO BURUAREN (EHB) SEGURTASUN FITXA

- 1) Ezbehar baten berri ematen zaio
- 2) Berehala joango da ezbeharraren tokira
- 3) Une oro harremanetan egongo da Larrialdiko buruarekin telefonoz, ezbeharraren bilakaeraren berri eman diezaion eta erabakiak elkarrekin hartzeko (esku hartzeko taldeak indartzeko beharra, etab.)
- 4) Sutea itzaltzen saiatzen da, esku hartzeko taldearekin batera. Bertan dagoen esku hartzeko taldearen ekintzak zuzentzen ditu.
- 5) Ezin badute itzali, 112 zenbakira deitzen du eta larrialdietako buruari ebakuazio plana aktibatu behar dela esango dio.
- 6) Bere eremua ebakutzen laguntzen du, Ebakuazio Taldearekin batera
- 7) Bere eremua hustu dutela egiaztatu ondoren, Bilgunera/Elkargunera joango da.
- 8) Ebakuatutako eremuei buruzko informazioa idatziz jasoko du. Alarma- eta ebakuazio-taldeek emandako informazioa. Bilgunean nor falta den egiaztatzen du
- 9) Kalteak ebaluatzen ditu, egoera normala berrezartzen du eta ezbeharrari buruzko txostena idazten du larrialdiko buruarekin batera.



### ESKU HARTZEKO TALDEAREN (EHT) SEGURTASUN FITXA




- 1) Ezbehar baten berri ematen zaio
- 2) Berehala joango da ezbeharraren tokira, eta su itzalgailu bat jasoko du bidean.
- 3) Esku hartzeko taldeko kide batek istripuaren eremuko energia eta gasa moztu beharko ditu, esku hartzeko buruaren agindupean.
- 4) Sutea itzaltzen saiatzen dira, eskura dituzten baliabideekin (su itzalgailuak).
- 5) Ez du inoiz urik erabiliko tentsioan dauden ekipoak itzaltzeko
- 6) Ez badu sutea itzaltzea lortzen, jarduera bertan behera utziko du

### ALARMA- ETA EBAKUAZIO-TALDEAREN (AET) SEGURTASUN FITXA






- 1) Ebakuazio Plana aktibatzeko abisua jasotzen du (Kontrol Zentroaren deia, edo alarma sirenaren soinua)
- 2) Esleitu zaion eremua ebakutzeko agintzen du, eta mugikortasun urria dutenei dagokion irteeraraino laguntzen die, beharrezkoa bada
- 3) Bere eremua erabat hustu dela egiaztatu eta hango langileek atzera egitea eragozten du.
- 4) Bere eremuaren ebakuazioa amaitzen duenean, handik atera eta ateak eta leihoak itxiko ditu (ahal bada), eta ezarritako bilgunera joango da.
- 5) Bere eremuaren ebakuazioaren berri emango du Bilgunean

### ERABILTZAILEEN ETA PUBLIKO OROKORRAREN SEGURTASUN FITXA

#### **1) Ezbeharren bat aurkitzen baduzu:**

-  Berehala jakinarazi Instalazioko langileei edo aktibatu sakagailu bat
-  Atera tokik azkar, baina korrika egin gabe. Ahal bada, itxi ateak eta leihoak. Ez egin atzera inoiz.
-  Une oro lasai egon, ez egin korrika eta ez egin oihu, izurik ez eragiteko

#### **2) Ebakutzeko agintzen badizute (ahoz edo alarma sirenen bidez)**

-  Atera tokik azkar, baina korrika egin gabe, eta joan Bilgunera
-  Bete beti langileen jarraibideak
-  Ez egin atzera inoiz
-  Ez bultzatu eta ez sortu pilaketarik
-  Egon Bilgunean larrialdietako buruak larrialdiaren amaiera agindu arte.

## 6.3.2 BONBA ABISUETARAKO JARDUKETA FITXAK

### KONTROL ZENTROAREN (KZ) SEGURTASUN FITXA

- 1) Telefono bidez bonba mehatxu bat jasotzen baduzu, ahalik eta datu gehien bildu eta 112 zenbakira deitu beharko duzu.
- 2) Jakinarazi larrialdietako buruari.
- 3) Bete kanpoko zerbitzuen aginduak (Udaltzaingoa, Ertzaintza, etab.)
- 4) Ebakuazio Plana aktibatzea erabakitzen baduzu: aktibatu eraikineko alarma sirenak (guztiak, edo larrialdietako buruak erabakitzen dituenak) eta deitu ebakuatu beharreko eremuetako ebakuazio taldeetako kideei.
- 5) Ebakuatu bilgunera/elkargunera, larrialdiko buruarekin batera

### LARRIALDIETAKO BURUAREN (LB) SEGURTASUN FITXA




- 1) Bonba mehatxuaren berri eman diote.
- 2) Une oro harremanetan egongo da esku hartzeko buruarekin telefonoz, larrialdiaren bilakaeraren berri eman diezaion.
- 3) Bete kanpoko zerbitzuen aginduak (Udaltzaingoa, Ertzaintza, etab.):
- 4) Ebakuatutako eremuei buruzko informazioa idatziz jasoko du. Ebakuazio taldeek emandako informazioa.
- 5) Larrialdiaren amaiera agintzen du. Kalteak ebaluatzen ditu, egoera normala berrezartzen du eta ezbeharrari buruzko txostena idazten du esku hartzeko buruarekin batera.

### ESKU HARTZEKO BURUAREN (EHB), ESKU HARTZEKO TALDEAREN ETA ALARMA- ETA EBAKUAZIO-TALDEAREN (EHT eta AET) SEGURTASUN FITXA






- 1) Ebakuazio Plana aktibatzeko abisua jasotzen du (Kontrol Zentroaren deia, megafonia edo alarma sirenaren soinua)
- 2) Esleitutako eremua ebakutzeko agintzen du ahoz eta bere eremuko megafonia bidez, halakorik balego
- 3) Bere eremua erabat hustu dela egiaztatu eta hango pertsonak atzera egitea eragozten du
- 4) Bere eremuaren ebakuazioa amaitzen duenean, handik atera eta Bilgunera joango da.
- 5) Larrialdiko buruari bere eremuko ebakuazioaren berri ematen dio.

### ERABILTZAILEEN ETA PUBLIKO OROKORRAREN SEGURTASUN FITXA

#### 1) Pakete susmagarri bat aurkitzen baduzu:

-  Abisatu berehala eraikineko langileei
-  Atera tokik azkar, baina korrika egin gabe. Ez egin atzera inoiz.
-  Une oro lasai egon, ez egin korrika eta ez egin oihu, izurik ez eragiteko

#### 2) Ebakutzeko agintzen badizute (ahoz edo alarma sirenen bidez)

-  Atera tokik azkar, baina korrika egin gabe, eta joan Bilgunera
-  Bete beti langileen jarraibideak
-  Ez egin atzera inoiz
-  Ez bultzatu eta ez sortu pilaketarik
-  Egon Bilgunean larrialdietako buruak larrialdiaren amaiera agindu arte.

## 6.4 Larrialdietan Jarduteko Plana martxan jartzeko arduradunaren identifikazioa

Larrialdietako burua arduratuko da Larrialdietan Jarduteko Plana martxan jartzeaz (edozein larrialdiren aurrean jarduerak hasteaz arduratuko da).

## 6.5 Bilgunea

Ebakuazioa egin ondoren, eraikinean dauden pertsonak eraikina utziko dute eta Bilgunera joango dira, guztiak han elkartzeko.

Bilgunean, Larrialdietako Taldeak norbait falta den egiaztatuko du.

Bilgune bakar bat zehaztu da, kiroldegiko sarbidearen ondoan, eta hara joan beharko dute eraikinean dauden guztiek, [302. planoan](#) ikus daitekeen moduan. Hala ere, toki hori arriskuan balego, ebakuatutako pertsonak beste toki batera eraman eta arrisku gunetik urrunduko dira, bideak gurutzatzea saihestuz, betiere.

Bestalde, igerilekuan, atariko barne bilgune bat dago gaituta, [316. planoan](#) jasota dagoenari jarraikiz. Lehenik eta behin hara joan beharko dute igerilekuaren erabiltzaile guztiek, ebakuazio agindua jaso ondoren.



*Bilgunearen kokapena*